

# SL-NA ARATXURI

I.I.D.E.: .

**Belate – Ermitako lepoa (Urdanbidegi) – Santa Maria – Aratzuri - Belate**

**Luzeera: 1,950 / 3,215 km    Desnibela: 50 / 150 mt    Zailtasuna: ERREZA**

Aurrehistoriatik Belate garrantziko pasagunea izan da: megalitoak lekuko, larreak eta metalak aprobetxatzeko; erromanizazioan, Iruñatik (Pompaelo) Galias-erako bidea; Erdi Aroan, Santiagoko erromesen pasagunea; XIX mende arte, Nafarroako Erresumako portu nagusia zen Baionarako bidea. Denek, errepideak ezik, egun babestua dagoen zohikaztegia edo padura sahiestu dute. Gaur, azpitik zeharkatzen duen 3 km-tako tunelak lasaitasuna itzuli du Belatera.

**IRTEERA** > Belateko Gaina, NA-1210 errepideko 3,6 p.k.-an; bertara iristeko Almandoz edo Arraitzko Bentan N-121 errepidetik desbideratu (“Belate” norabidea). Almandoztik etorrira, ezkerrean, aparkaleku moduko zabalgunea; eskuinean plubiometro bat bada. Babesgune eta ostalaritza zerbitzurik ez (gertuena, 1 km-ra, Ultzamako Bentan).

## **OHARRAK**

- Luzeera / Desnibela: ibilbideak 2 km luze eta 50 mt desnibela badu ere, Ermitako lepoko megalitoak ikusteko deribazioa bat egin behar da Belateko kaltetatik (GR12 eta Santiagoko Bideko seinalizazioa). Guztira: 3,215 km.
- Zohikaztegia edo padura (2,125 km): leku lohitsuak, lurraren hezetasuna dela eta berezko ekosistema garatu dutena. Belateko Gainean, errepidearen bertze aldean, zohikaztegi handia aurkitzen da; gune hauek babestuak daude Belateko GKT-LIC barruan (Garrantzi Komunitarioko Tokia).

## **DESKRIBAPENA**

0,000 km: **BELATE** (820 mt), NA-1210 errepideko 3,6 p.k.-an. Aparkalekua eta plubiometroa. GR 12 “Euskal Herriko Bidea”ren pasagunea: eskuinetik (M.>) eta plubiometrotik, Gorostieta aldera; ezkerretik (E.>), Artesiagarako pista. Azken honetatik abiatu (E.>), balangoa pasa eta pagadian sartu; metro gutxira, eskuinetik, itzultzeko bidea agertzen da. Pista mantendu eta basotik atera; Aratzuriko erreka (edo Ultzama) bailarako ikuspegia.

0,910 km: Belateko kaltetara (850 mt) eta Santiagoko Bidearekin lotura (gezi horiez baliztua). Bifurkazioa: zuzenean (E.>), kaltetara Sta Maria ermitara (ibilbide nagusia eta Santiagokoa). Ezkerretik igo (I.>), kaltetatik mendi larretan barna eta GR 12 eta Santiagoko Bidea segituz (ERNE: hau Ermitako lepoko megalitoak bisitatzeko SL balizarik gabeko deribazioa da).

1,410 km: **ERMITAKO LEPOA** (915 mt) edo Urdanbidegi, zabala eta belartsua. Ultzama eta Baztango mugako balangoa. Leku izena bertan izan zen ermitatik dator, gaur egun eroria. Bidegurutzeta: zuzen (I.>), Santiagoko Bideko kaltetara, zutarrari moduko harlauzez seinalizatua; eskuineko pistatik (E.>), Artesiagara (GR 12). Gune megalitikoak: bi harrespil, hiru tumulu eta, metro batzutura ezkerretik, zutarrari bat (*IKUS: 580-585 fitxak*). Bide beretik itzuli.

1,910 km: Ermitako bidegurutzetan berriz (850 mt), ezkerrean jo (E.>) eta kaltetatik jeitsi, belagia mugatzen duen harresiaren ondotik.

2,075 km: SANTA MARIA ERMITA (810 mt), ezkerrean. Santiagoko errromesen pausagunea; egun Ultzamako herrietatik erromeria egiten da. Behiti segi bertze 50 mt, eta Aratzuri erreka zubi pasabaino lehen, Santiagoko Bidea utzi eta eskuineko bidexkatik jo (M.>), zohikaztegi edo padura bat zeharkatuz. Errekaren eskuineko bazterretik tarte ospela, pagadian barna.

2,675 km: Harritzar haundia. Errekaren bazterra utzi eta eskuinera (I.M.>) igo.

2,900 km: Zelaigunea. Errekaxo bat zeharkatu eta 30 mt aurrerago, eskuineko malda apaletik igo. Bukaeran etortzeko pistarekin bat egin, bertatik azkeneko metroak eginez.

3,215 km: BELATE (820 mt), NA-1210 errepideko 3,6 km p.k.-an. Aparkalekuko zabalgunea. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.